

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

13/2019 Mozioa, otsailaren 27koa, Arabako egoitzen hitzarmen kolektiboa sinatzeari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko otsailaren 27an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

13/2019 Mozioa, otsailaren 27koa, Arabako egoitzen hitzarmen kolektiboa sinatzeari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote aldeztu, sustatu eta bultzatu dezala, bere eskumenen esparruan, elkarrizketa soziala eta negoziazio kolektiboa Arabako egoitzen sektoreko patronalen eta sindikatuen artean, sektorerako hitzarmen probintziala negoziatzeko helburuz.

2. Arabako Batzar Nagusiek Aldundiari eskatzen diote ezen, Arabako egoitzen hitzarmen kolektiboa sinatuz gero, hitzarmen hori kontuan izan dezala, beste jarduera-sektore batzuekin egiten duen lez, kalkulatzeko hitzarmen, itun edo prestazio publiko bidez betetzen diren egoitza-plazen prestazio publikoa, kostua edo prezioa, egoitza-plaza bat eskuratzeko eskubidea duten erabiltzaileei plaza bat ematearren.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 27a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA